



**JUAN KRUZ
IGERABIDE**

**DONEANEKO
ALABA**

Eleberria

ALBERDANIA





**JUAN KRUZ
IGERABIDE**

**DONEANEKO
ALABA**

Eleberria

ALBERDANIA



DONEANEKO ALABA

*Bitartean ibillico dira becatutic becatúra amilduaz;
oraiñ pensamentu batean, gueroseago itz loyak gozotoro aditzean:
oraiñ escuca, edo queñada batean, guero musu edo laztanetan:
oraiñ ipui ciquiñac contatzen, guero dantzán,
edo dantzà ondoan alberdanian.*

J.B. AGIRRE

1. argitaraldia: 2021eko apirila.

*Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren laguntza
izán du liburu honek.*

© 2021, Juan Kruz Igerabide Sarasola

© Argitaraldi honena: 2021, **ALBERDANIA, SL**

Istillaga, 2, beheka C - 20304 Irun

Tel.: + 34 943 63 28 14

alberdania@alberdania.net

www.alberdania.net

Azaleko irudia: Mariaje Fuente.

Inprimatzailea: Ulzama (Huarte, Nafarroa)

ISBN: 978-84-9868-660-9

Legezko gordailua: D-418/2021



DONEANEKO ALABA

JUAN KRUZ IGERABIDE

ALBERDANIA

eleberria

*Langa guztien azpitik
ibili behar hau.*

GEZUR-LANGA

*Mitoaren eta errealitatearen
tarteko langa dinbi-danba dabil,
historiaren eta barne-sentipenen
haize-boladek astindu ahala.*

LEHEN OHARRA

Aldi hartan, herriko emakume batzuk elkarrekin itzultzen ziren etxera, igandeko bazkaritarako. Bakoitzak bere bidetik jo behar zuen puntuan, luze egoten ziren bizketan, tartean langa imajinario bat baleukate bezala. Gezur-langa zeritzen gune hari. Gezurrezko langa bat, gezurren itzulunguru.

BIGARREN OHARRA

Nobela honetako pertsonaiak fikziozkoak dira, narratzailearengandik hasita. Tartean agertzen diren pertsonaia historiko gutxi batzuk izen-deituraz izendatzen dira, bat izan ezik. Kokapen geografikoari dagokionez, berriz, nobela honetako herria fikziozkoa da, nahiz eta antz handia duen benetako herri batekin. Benetakoaren mapa baten gainean, fikziozko mapa bat erantsi da. Puntu batzuetan, bi mapak bat datoz; beste batzuetan, berriz, margolan kubisten antzera itsasten dira, planoz plano.

–BADATOZELA nafarrak!

Tabernako atetik bat-batean sartuta bota zuen aguazilak bazetozela nafarrak, bazetozela nafarrak; eta ihesi abiatu zen, bidean aginte-makila eta txapadun txapela lurrera botata, frontoia zeharkatu eta ezker-paretako ate-zulo txikitik makurtuta igarotzeko Sorabillara zeraman bidezidorrerantz. Alpargatak zituen oinetako, oroimenak huts egiten ez badit; eta galtza urdinak eta alkandora zuria soinean, itxura harekin ibiltzen zen-eta herrian. Apustueta bezala bota zuen txapela, eskumuturraren keinu batez abaila emanaz; makila, berriz, eskutik itzuri zitzaioa esango nuke, hainbeste urtetan hain sendo eutsi ondoren. Ez da haren berririk heldu herrira, urteak joan, urteak etorri. Makila hura inork ez zuen jaso puska batean; bazterrean egon zen, agintea lurrean sinbolikoki botata, eta gero ez nuen jakin nork bildu zuen lurretik hurrengo aguazil izendatu berriari emateko. Aguazil zaharrari *txinela* deitzen genion umeok; izendatu berriari, aldiz, *aguazila* deituko genion besterik gabe.

Ilunabarra zen; Altamirako morroiak emana zion abisua txinelari, malkarrean gora lasterka bizian igota. Uztailaren 18ko estatu-kolpearen berria zabaldu zenetik, herriko errepublikazale eta abertzale urriak adi zeuden, elkarri abisua pasatzeko hitz emanda. Berria jaso bezain bizkor egin zuten ospa denek, alkatea eta zinegotzi batzuk tartean zirela. Tiroen oihartzunak iritsi ziren Tolosa eta Billabona aldetik; handik ez denbora askora, tiroen oihartzunak Zizurkil eta Asteasu aldetik.

Taberna hutsik geratu zen, bezero bakoitza bere bidetik aienaturik, baina gure aitak zabalik utzi zituen ateak, argiak itzali gabe. Zortzi urte nituen, eta jada hasia nengoen aitari laguntzen, hau jaso, bestea ekarri; ardoa eta sagardoa ere zerbitzaten nituen, aita botilak betetzera urruntzen zenean upelak zeuden zokora. Mostradorearen barruko aldean geratu nintzen, lubaki batean babestuta bezala, burua baizik ageri ez zitzaidala. Beste tiro batzuk izan ziren Antziban, Oria ibaia zeharkatzen zuen zubiaren aldean gutxi gorabehera. Tiro

haien oihartzuna ehizako tiroen aldean lehorragea zen; bazuen antzik harrobian harkaitzen kontra harrika ibiltzen ginenean talkak ateratzen zuen hotsarekin.

Berandu konturatu nintzen neure danborra aulki baten gainean utzia nuela. Marruka hastera doan piztia zirudien, geldi-geldi, atezuan, ahoa biribilduta, ihes egiteko irtenbide guztiak butxatuak, belarriak erne, izuaren zulo beltzean perlesiak jota. Ordurako, plaza-bete soldadu ageri zen. Berehala hasi ziren etxeak miatzen, taldeka. Tabernara ere sartu ziren, jakina; gora eta behera ibili ziren, etxebizitza eta biltegia miatzen. Aita mutu zegoen kupelen ondoan, azken botila bete berria eskuan zuela; ama, sukaldean, nork zer eskatuko. Anaia eta arreba txikiak, berriz, aitonarekin goiko logelan, lotan edo. Haiek bakean utzi zituzten.

Nire buru barnea kili-kolo zebilen izuaren eta jakin-minaren artean, atez kanpoko itzalei eta atez barruko gorputzen joan-etorriei begira, eta aldi berean barne-kontzientzian zenbait ameskizun irudikatuz, munstro edo sorginkeriazko irudiak tarrapatan, inolako ordenarik gabe, kanpoan ikusten nituenekin nahasian. Ordua, zehazki ezin esan; ilunabartzen ari ote zuen edo, ilunbista ote zen alegia, edota litekeena da buru barruan edukitzea nik ilunbista, izuarena, ameskizunarena, ez baitzuen benetakoa ematen inguruko gorputzen eta txapel gorrien joan-etorri hark; neure burua eta ingurua ipuin baten barruan bezala ikusten nituen, errealitate amestuaren eta historikoaren arteko gezur-langa dinbi-danba zoroan hasi balitz bezala.

–Aizak, mukizu! Aterazak ardoa! –bota zidan txapelokerren buru egiten zuenak, esnaraziz bezala, aitonaren hizkera-doinu bertsean; sortzez Aralar inguruko herriren batekoa behar zuen, inondik ere, aitona bezala.

Botila bat atera nion mostradore gainera. Gehiagok ere eskatu zuten.

–Lasai, mutiko! Ordainduko diagu! –gehitu zuen, sakelan eskua sartu eta txanponak astinduz.

Txapelokerretako bat, itxuraz oso gaztea, artean bizarrik ez baitzeukan, danborra zegoen aulkira hurbildu zen. Begira egon zitzaion une batez.

Danborrak begirada destainaz itzultzen ziola ematen zuen. Gero, zakar samar helduta, makilatxoez dinbi-danba joka hasi zen, hots desatseginak ateraz.

–Utz ezak hori! –agindu zion txapelokerren buruak.

Eta niri begiratu zidan:

–Hirea, ala?

Buruaz baietz egin nion. Ez neukan batere gogorik danborra jotzen hasteko. Aitari begiratu nion. Kupeletik ardo-botilak betetzen jarraitzen zuen, tarteka niri begira, tarteka amari sukaldeko ate irekitik. Keinu bat egin zidan, lasaiarazi nahian, baina begi-ertzak zirkin egin zion. Gurekin haserretzen zenean pasatzen zitzaion hori; ez nekien izuak jotakoan ere gauza bera gertatzen zitzaionik. Egia esateko, ordura arte ez nuen inoiz ikusi aita beldurrak airean.

–Jo ezak!

Txapelokerren buruak, danborra soldaduari zakar kenduta, niri ekarri zidan. Aitari begiratu nion. Baietz iradoki zidan keinu txiki-txiki batez. Txapelokerra gizon kankailua zen, sendoa eta gihartsua, ihesi joan berri zen txinelaren parekoa. Paparretik heldu zidan esku batez; gorantz jasorik, mostradorearen gainera atera ninduen. Bitarte horretan, buru barruan ibilbide bat egin nuen, mendiarteko tximinia horietako batean haize-zirimolak jasotako orbela bezala aireratua, harkaitzen ertz zorrotzen igurtzi lakarra sumatuz; gogoeta egiteko denborarik eman balit, ate-uztaitik parez pare nekusan Jasokunde elizaren itzalari begira, beharbada pentsatuko nuen Ama Birjinak ere halako zerbait sentituko zuela, leunago noski, jasokundea gertatu zitzaionean. Minak zakar atera ninduen, ordea, neure barrunbetik; munstro batek zuhaitza sustraietatik nola, hala erauzi ninduen atzapar zakarrak gorantz. Mostradorearen ertzean eserita, danborrari sokak estutzen hasi nintzen, mina ahaztu nahirik. Txapelokerrak makilatxoak eskuetan jarri zizkidan, zakar berriro. Neure onera ahal bezainbat etorrita, ttarrapattattan lotsati bat jo nuen, luze, zakukada arto ontzi batera leunki husten ari banintz bezala. Soldaduek ez zidaten begiratu ere egiten. Amaiturik, makilak alde batera utzi nituen.

–Jo ezak *Gernikako Arbola* –agindu zidan txapelokerren buruak.

Ezagutzen nuen pieza; erritmoa markatzen hasi nintzen, musikaren azentu luzatuetan arrada laburrak eginez. Tabernan zeuden txapelokerrek gainerako soldadu guztiak isilarazi zituzten. Txapelokerren buruak elizako kanta sakratu bat balitz bezala kantatu zuen pieza, eta denek txapela erantzita entzun zioten; soldaduei ere kasketa kenarazi zieten. Bigarren bueltan, eresia ezagutzen zutenak kantari jardun ziren. Amaitutakoan bibaka ekingo ziotela uste nuen, baina isilik geratu ziren denak, begietan etxeko nostalgia ageri zutela. Ahots batek eten zuen isiltasuna, mahai batetik.

–¡Una jota, chaval!

«Ya vienen los segadores de segar de los Monegros» kantatzen hasi zen, oso goitik, nahiko txukun. Lagundu egin nion, leun-leun, tarteko isilaldietan tarrapata ozenagoak joz. *Segar* hitza esaten zuen bakoitzean, lepoa mozteko keinua egiten zuen. Gero, beste jota batzuk ere kantatu zituen.

Jota haietako baten erdian, berebiziko garrasiak heldu ziren kanpotik, txerria hiltzen genuenean baino ziztagarriagoak, enara multzo batek airea behin eta berriz zeharkatzen duenean bezalakoak. Danborra mututu nuen. Soldadu batzuek Doneaneko Mikela sartu zuten bultzaka tabernara, eta txapelokerren buruak zaplaztekoak eman zizkion, isilarazi zuen arte. Begirada neure baitara bildu zitzaidan, lehen ikusitako gorputzen eta txapel gorrien joan-etorrien irudi nahasiak eta entzundako hots eta oihuak zirimola batean bilduz; egoera larri hartan, irudi komikoak igaro ziren nire buru barruko pantailan, irudi osatu gabeak, aurpegiaren erdia falta zitzaienak, edo eskurik gabeak, edo begirik gabeak, patetikoak bezain barregarriak; haietako batek mingaina atera eta, sartzerakoan, kameleoi batek bezala bildu zuen. Berrito arreta kanpora ekarri nuenean, Mikelak begietara begiratzen zion txapelokerren buruari, begi-niniak estu-estu, intziriak ezpain artean itoz, hortz artetik sugearen moduko ziztuak ihes egiten ziola. Hura ez zen nik ezagutzen nuen Mikela ezta, hura ez zen nik ezagutzen nuen Mikela aurpegi-polita, hura ez zen nik ezagutzen nuen Mikela irribarretsu dantzari arina; haren begiradak ez zirudien mundu honetakoa.

Handik pixka batera, Auxtin Ttiki sartu zuten arrastaka; bultzaka ibili zuten, zaku bat balitz bezala. Galderak egin zizkieten. Auxtin, burumakur, hondoa jota, mutu; beti irribarrea ahoan zuela ezagutua nuen nire lehen danbor-maisua, artean oso gaztea, ezkondu berria, hondoa jota, infernuko zuloraino umiliatua. Hark ere beste norbait zirudien, begiak aurpegitik ihes egiteko zorian, mamu ikaragarri batek beso artean estu-estu lotu balu bezala.

–Eraman ezak andrea etxera! –agindu zion, zakar, txapelokerren buruak–. Eta eutsi atez barrutik atso ero horri, arazoak izan nahi ez badituk!

Doneaneko Mikelak soinekoa tarrantaz beterik zeukan; izter guri baten eta sabelaren zati bana bistaratzen zitzaizkion mugitzen zenean; harategiko okela zatiak gehiago iruditu zitzaizkidan gorputz-atalak baino. Eta nire begiradak berriro barrura egin zuen, irudi guztiak aienatuz, zulo beltz batek barrunbea betetzen zidala.

Une honetan, kontakizuna zero graduan etenik geratzen da. Idazmena, izotz artean mutu, ez Roland Barthesek zioen absentziaren estiloan sorturiko estiloaren absentzia ideal gisa, baizik eta erabat izozturik, zero graduan. Idatzi batzuk izozturik geratzen dira, gehiago esan ezinez.

ZER GEHIAGO adieraziko dizut ba horretaz guztiaz? Ezagutuko duzu noski gertaera orokorren historia, nahiz eta herrian jende askok halako kontuak aherentzi nahi izan dituen. Kontakizuna jarraitu aurretik, adierazi nahi dizut harritura geratu nintzela zure gutun luzea jaso nuenean. Ederki idatzia, gainera. Erantzuna prestatzen ari naizela, pentsatu dut: hiri hika egitea luken normalena, halaxe izan dun ohitura gure inguruan, baina ez dinagu inoiz konfiantza nahikoa erein bion artean, eta zuka jarraituko dinat. Konfiantza falta horren errua nirea da, inolako zalantzarik gabe, iloba –*iloba maitea* esan beharko nuke, ilobak behar bezala maitatzen ikasi izan banu–. Zure gutunarekin harritura geratu nintzen, bai, esaten zenidalarik zeinen gustuko duzun literatura, ez bainuen zure zaletasunen berri; harritura, bai, zenbat irakurri duzun adierazita, literatura modernoa ez ezik klasikoa, mitologia eta guzti alajaina. Ez nekien halakorik ezer, ez baitugu inoiz bertatik bertara behar

bezala hitz egin. Azaleko gauzak besterik ez dakizkit zuri buruz; ingeniaria zarela, noiznahi atzerrira joaten zarela zeure lana dela eta; horrelakoak. Gertuagoko gauzarik, bakar bat ere ez. Niganako adierazten duzun miresmen gehiegizko horrek, berriz, ez du benetako sostengurik, ez bainaiz portatu inoiz osaba bati dagokion moduan, eta literatura-ikertzaile gisa ere erdia baino gehiago ustela baitut. Ez nazazu har, mesedez, familiako heroi literariotzat, azken batean antiheroi bat besterik ez naiz eta; baina ez nobela ospetsu horietakoa bezalakoa; nik taxuzko porrot bat ere ez dut lortu, beti ttartte epel kokolo batean kokatuta. Nire historia jakin nahi omen duzu, nire ibilbidearen sorburua ezagutu, zuretzat misterio bat omen, hala errepikatzen didazu behin eta berriz; zuretzat misterio bat ni, ardi galdua ote naizen susmatzeraino, nahiz eta gurasoek horrelakorik adierazi ez; hortik atera kontuak zenbaterainoko komunikazioa izan dudan nire anai-arrebekin eta bien familiekin. Ardi galdua ni; beharbada definizio egokia da. Ardi galdua beti ardi ordea. Nik, aitzitik, neure buruari ardiarena baino otso koldarraren traza gehiago hartzen diot, edo, hobeto pentsatuta, asto batena, eta, aldi berean, suge batena; basati jauzikari nahi, eta narrasti izan, langa guztien azpitik arrastaka. Bazeneki benetan zer nolakoa naizen, beharbada gorrotatu ere egingo nindukezu, miretsi ordez. Idatzi dizudan umezaroko pasarte horretatik abiatuta, nire ibilbidea ez da izan batere eredugarria, are gutxiago mirestekoa, jakin ezazu; honetara jarrita, ez natzaizu ibiliko ezer leuntzen, gordin botako dizkizut neure kontuak, aho-bixarrik gabe, iritsi naizen puntura iritsita berdin dit-eta ostiko ala zizta. Barrua hustea ez zait gaizki etorriko; edo bai, auskalo; baina, behin kamioiaren iraulkiari eraginda, hustu dadila dena, nahiz eta iruditzen zaidan barruaren axala besterik ez dela agertuko hemen, barruaren barrua zer den inork ez daki eta. Gu bion artean geratuko ahal da hau guztia; egia esan, ez lidake axola handirik inoren ahotan ibiltzeak, baina nahiago xomorro-xomorro. Idatzi luze hau ez behintzat erakutsi zure amari; beti izan duen mingain txorrotx horrekin familia barruan egundoko tekela aterako luke; hobe dugu gauzak bere horretan uztea. Ez nago eztabaida antzuetarako. Aitor dizut nigan ate-xulo ezkutu bat

ireki duzula zeure gutunarekin, eta hara zer agertu den. Koipez leundu gabe esango dizkizut, bada, neure kontu hauek, etorri ahala, mitologiako kontakizunak bezain garratz, preseski mitologiako kontakizun batzuk tartekatuz, esaten ez dizudana zeuk asma dezazun, iradoki besterik egiten ez denari baitario odolik mingotsena, nahiz eta iradokitzaileak berak ere ez daukan oso garbi zer iradokitzen duen, bi planoen arteko antzekotasunak antzekotasun.

AUXTINEN ETA MIKELAREN Doneanetik Traziara, pauso bat besterik ez. Egin jauzi nirekin, iloba, babestu nire atzean, beldur bazara, nahiz eta koldar honen bizkarra ez den babesik fidagarriena. Horra hor Orfeo erregea, inoiz izan den poetarik eta musikaririk ospetsuena; Apolok begiko du txikitandik, lira bat ere oparitua dio. Orfeoren musika zoragarriaz, piztia basatiak bare-bare; ez piztiak soilik: harriak eta zuhaitzak ere bai. Orfeo: oso gazterik Egipton ibilia, argonautekin urrezko ardi-larruaren bila jarduna, sirenen aurretik igarotzeko orduan haien kantuz liluratu ordez berak liluratu zituena; abenturatik nahikoa eginda, Traziara itzuli da, Euridizerekin ezkontzera, inguruetakoko krabelinik krabelinenarekin. Irribarrea irribarrearen atzetik biziko dira aurrerantzean bi maitaleak.

Badoa behin Euridize Peneo ibaiaren inguruetara, zoriona txaplakatzera. Berak ez jakin asko, baina Aristeo erraldoia zelatan du sastraka batzuen atzetik, barrua suak harturik, Euridizeren edertasunak bere onetik aterata. Emakume gazteak gutxien espero duenean, hor datorkio Aristeo dena emanda, bere hura tente-tente, hantxe bertan estaltzeko irritsak itsutua. Euridizeren garrasia eta lasterka hastea bat eta bera izan dira, haragizko ezpata beldurgarri hura erraiak erdibitzera datorkiola ikusirik. Badoa Euridize arin-arin. Badatorkio Aristeo, grinak ematen duen abioarekin.

–Hator, polit hori; orain jakingo dun zer den benetako musika.

Izuak hegalak ematen, eta txori bihurtu Euridizeren oinak, Aristeori aldea ateraz. Baina sugedorri batek ikusi oin txori horiek. Sugedorria ere tente, Aristeoren sugearen antzera, eta hor jo dio hozka orpo xurian Euridize ederrari.

Neskak *ai!* samin bat bota du, arnasestuen erdian, gero eta pauso ahulagoz, lasterka egiteari utzi gabe.

Aristeok sugegorria harrapatu, burua kraskatu, sugegorria hiltzearekin batera Aristeoren irritsa ere bai, pausoa apaldu, orpoaren gainean buelta hartu, eta etorritako bidetik itzuliz doa, lotsak abailduta.

Euridize arnasestuka iritsi da basoaren ertzeraino, oinek jarraitu nahi ez, eztarria intzirika, izarrak zulatzeko moduko txilio zorrotzak. Hortxe, hortxe etxea; leiho batetik, Orfeoren liraren doinua Euridizeren belarrietaraino. Belauniko ninfa ederra; gero, bularra lurrean; ezpainak, berriz, belar jaioberriak miazkatuz. Liraren musika, hor bertan egonik ere, gero eta urrunago, gero eta urrunago. Musikarekin batera aienatuz, Euridizeren arnasa.

Nire ondoan jarraitzen al duzu, ilobatxo? Bizkor egingo zenuen noski gerrako pasartearen eta pasarte mitologikoaren arteko lotura sinbolikoa; ñabardurak, zeure esku. Honetara etorrita, damutu ez bazara behintzat, jarrai dezagun tunel larri honetan barrena itsumustuan.

LAU URTE NITUELA jarri zidan danborra esku artean Auxtin Ttiki txistulariak. Begira-begira egoten nintzaion tabernan igande arratsaldeetan, betiko dozena pieza hala moduz errepikatzen zituen bitartean, bere irribarre gazte jolastiaz lagundurik. Orduan halakoxea zen mutil hura, dena poz, dena bizitasun, eta, nire ume-aburuz, munduko txistularirik onena. Hari begira, hatzak jostari mugitzen zitzaizkidan, berezko erritmo bat irteten zitzaidan, sabel barruan kilimak sentitzen nituen, eta ahoraino zapore goxo bat igotzen zitzaidan, karamelurik eztieta –inoiz jango ez dudana karamelu ideal hori– dastatuz bezala. Auxtinekin ikasi nituen lehen piezak danbor txikian; danbor txikia, baina benetakoa, estutzeko soka eta guzti. Tresna ukitzerakoan, abere fantastiko baten larruaren dardara nabaritzen niola iruditzen zitzaidan. Panderoa lardaskatzen ere erakutsi zidan, eta bere erromeria inprobisatu haietan laguntzen nion ttarrapattaka. Bizpahiru fandango, bizpahiru arin-arin, beste bizpahiru biribilketa, beti pieza berberak errepikatzen zituen, noiz edo noiz doinu berriren bat tartekatuz, eta, haren musikarekin, herriko neskak eta

mutilak dantzan ibiltzen ziren tabernaren aurreko plazatxoan. Gure aita «zurrunkiloari» ez zion batere graziaz egiten ni ofizio hartan ikusteak; nahiz eta amak esaten zion utziozu gizona zer kalte egingo dio ba, aita sutu egiten zen, ea zer atarramendu zen hura, musikak txoriburuak sortzen zituela eta halakoak botaz. Eta nik ez nuen ulertzen zer ote zen hain larria, ezta ulertu nahi ere, plazeraren plazeretan egoten bainintzen musikaz inguratuta, Auxtin Ttikiri panderoarekin edo danborrarekin lagunduz, aita kontra egonik ere ama eta aitona alde neuzkan eta; hain zuzen, aitonak oparitu zizkidan hala danborra nola panderoa, aita amorrarazteko, apustu egingo nuke, ez baitzuen gogoko aitaren zintzotasun gehiegizko hura. Aitonak berak ezarria zuen dantzaldiaren ohitura hura taberna aurrean.

Gerora, Lito organista etorriko zen herrira. Ordura arte, Andoaindik igotzen zen organista bat meza nagusian jotzera, baina ez igandero, noiz edo noiz baizik. Hala, apaizarekin batera herriak erabakita –hala deitzen genion orduan udalari, herria–, organista bat behar zela eta, Litori eskaini zioten lanpostua, etxea dohain izatearen truke. Litok, bizimodua ateratzeko, udaletxeko idazkaritza eramaten zuen, eta txistua edo esku-soinua erakusten zion nahi zuenari; inguruko herrietatik ere etortzen ziren harekin ikastera, musikari onaren ospea baitzuen. Ni ere Litorekin ikastera bidali ninduen Auxtin Ttikik, danborrarekin erritmo aberatsagoak erakutsiko omen zizkidala eta; handixeagoa egitean organoa eta esku-soinua ere harekin ikasteko esaten zidan. Litoren musikak, elizako organoan, orkestra oso batena zirudien, harmonia aberatsez jantzia; Andoaingo organistaren musikaren aldean, harena beste zer bait zen. Esku-soinua ere organoaren antzera astintzen zuen, notak ondo harilkatuz, tekletan oreka lantzen ari balitz bezala. Litok ateratzen zituen doinuek espazioa betetzen zuten, zeruraino; hala iruditzen zitzaion ni nintzen mutil koskorrari.

Mikela eta Auxtin Ttikiren ezkontzan, Litok jo zuen organoa. Nik pasatu nizkion partituren orriak organoaren albo batean jarrita, nik sartu eta atera nituen organoaren aldagailuak, nik astindu danborra elizako irteeran, harro

asko, Litok txistua jo eta herriko gazteek ezpatak jasota ezkonberriei zubia egiten zieten bitartean.

Bazkaltzera ere gonbidatu ninduten Doneaneko mandioan. Litoren ondoan egon nintzen bazkaritan. Eztei-tartaren bigarren zatia niri eman zidaten, beharbada begiekin jan beharrean ikusi nindutelako. Neure baitan ez nengoen Doneaneko mandioan, lurralde harrigarri batean baizik; artean *Alizia* irakurri gabe neukan, baina nire buru barruko paisaiak bazuen antzik gerora liburu hartan irakurriko nituenekin. Bazkal ondorengo dantzaldian Litok esku-soinu handia jo zuen, eta nik danborrarekin eta panderoarekin lagundu nion. Halako batean, *La princesa del acordeón* doinuari ekin zion Litok; modan zegoen garai hartan. Piezaren lehen motiboa amaitzerako, jende guztia geldi-geldi eta isilik geratu zen, dantza eta berriketa etenda. Nik neuk ere panderoa mututu egin nuen. Bost buelta eman zizkion piezari, buelta bakoitzean bariazio desberdinak eginez, batzuk berak asmatuak seguru asko. Amaitzeko, hauspoa poliki itxi zuen. Jendeak isilik iraun zuen une batez, eta gero txalo-zaparrada luze bat izan zen, Milango Scala-n bageunde bezala. Zoriontsu geratu ziren Auxtin Txiki eta Mikela. Zoriontsu, 1935eko San Pedro egunean.

Gezurra badirudi ere, zoriona edo zorionaren hurbileko lorezti hori dastatua naiz neu ere, iloba, nahiz eta orain dasta mikatza iristen zaidan mingainaren oroimenera.

–TOLOSAKOA DA –azaldu zigun aitak, nafarrak herrian sarturiko biharamunean bazkaltzen ari ginela, berandu samar, taberna hustu eta gero; begi batek zirkin egin zion–. Txapelokerren buru egiten duen hori Tolosakoa da, Unanue, karlista amorratua. Piztia hutsa. Hamaika entzunak ditut horri buruz. Gorriti du izengoiti, herri hartan jaioa baita.

Gero, damutu balitz bezala, hitz beste egin zuen; izan ere, nire anai-arreba txikiagoek edozer gauza bota zezaketen xalo-xalo soldaduen aurrean. Keinua bat egin zigun besteoi, bereziki niri, hatz erakuslea ezpainenetara eramanez.

Hala geundela, builak entzun genituen plazan. Aitak eta biok kanpora jo genuen. Aitonak ere zutitzeko keinua egin zuen, baina amak besotik heldu

zion. Lau soldaduk Altamirako morroia zekarten lotuta, ostikoka. Nire baitan Gurutze-bideko irudiak pilatu ziren, Jesus arrastaka, Pilatok agindu du lapurren artean iltzez gogor josteko Jesus gurutzean, buruz nekizkien Nekaldiko bertsoak. Txapelokerren burua agertu zen plaza ondoko baserritik, han hartu baitzuen ostatu, baimenik eskatu gabe noski. Herriko jendea, ezkutuan, leiho-zirrikituetatik begira egongo zela egin nuen neure kabutan. Leiho-zirrikituak, izuaren kirrikak; hamaika halako, soldaduak herrian egon ziren bitartean.

–Zer dugu?

–Artasoro batetik zelatan harrapatu dugu, jauna.

–Ba, badakizue zer egin behar zaion.

Une hartan, apaiza iritsi zen lasterka, sotanaren goiko botoiak lotuz; siestatik jaiki berria inondik ere.

–Mutil hori on puska da, ordea! Zer egin du?

–Ez sartu kontu honetan –erantzun zion txapelokerrak.

Apaizak aparte eraman zuen txapelokerra. Elizkoia zen Unanue hura; egunero goiz-mezara joaten zen beste txapeloker eta soldadu batzuekin batera. Herrian sartu eta berehala egina zuen apaizarekin harremana, adiskide izatera iritsi gabe ordea, ezen apaizak, karlista amorratua izanik ere, beste ikuspegi bat zeukan estatu-kolpeari buruz; ez zegoen gauzak bortxaz lortzearen alde.

Txapelokerra bere gizonengana itzuli zen.

–Askatu memelo hori! –eta morroiari–: Hator, mutil, zerbait esan behar diat.

Morroia mozolo-mozolo hurbildu zitzaion. Eman zion zaplaztekoarekin lurrean piririka bota zuen gaztetxoa, ia mutiko bat artean.

–Alde!

Hanka hankari, ziztu batean desagertu zen morroia malkarrean behera. Apaiza aitarenka itzuli zen erretore-etxera. Gure aitak besotik emeki tiraka erakarri ninduen tabernara bueltan, zaplaztekoaren oihartzuna neure masailean sentitzen nuela. Atetik sartu aurretik, organistaren etxebizitzako leihoan

Litoren aurpegia ikusi nuen. Etxetik elizara, elizatik etxera ibili zen hura soldaduak herrian egon ziren bitartean. Ez zen esku-soinuaren musikarik irteten leiho hartatik, lehenago bezala; are gutxiago txistuarenik; Billabonan hil berria zuten txistulari gazte bat, txistularia zelako, besterik gabe, falangistek kontu horrengatik soilik abertzaletzat hartuta. Lito errepublikazalea zen, herritik ihes egin ez zuen bakarra, barea, inoiz liskarretan sartu gabea; jendeak bazekien baketsua zela, baina edonork sala zezakeen gutxien uste zen unean. Hala ere, ez zen halakorik gertatu. Gero jakin genuen apaizak ezkutuan lan handia egin zuela txapelokerren burua bere alde jartzeko, erlijio kontuen bidez batez ere, herria gehiago zigortu ez zezan; gizon hura baretzeko, besteak beste, Belkoain gailurrerantz erasoren bat prestatzen zuten bakoitzean, irten aurretik bedeinkazioa eskaintzen zien apaizak nahi zuten guztiei, isipua astinduz. Hala eta guztiz ere, ezin izan zuen saihestu Antziban harrapatu zituzten bailarako hiru gazteren heriotza, bertan tirokatu baitzituzten, zertan zebiltzan galdetu ere egin gabe; txapelokerren buruak berak errematatu zituen pistolaz, lurrean dardarka zeudela. Tirokatuen muinak bide bazterrera erori ziren; gure aitak jaso behar izan zituen gero pala batekin, ganadu larrutu eta zatikatu baten hondakinak balira bezala. Aitari laguntzera abiatu nintzen, baina berak besotik gogor heldu zidan, begi-ertzeko dardaratxo eta guzti; tabernan geratzeko agindu argia, hitzik gabekoa.

Gorpuak Doneaneko sailetan lurperatzeko agindua eman zuen txapelokerren buruak. Beste laido bat gehiago etxe hartakoen kontra. Baserri hura begitan hartua zuen piztia hark, ez jakin zergatik. Hori gutxi balitz, gainerako baserrietatik ez bezala, Doneanetik bi zekor eraman zituzten, soldadu-ostea elikatzeko, ordaindu gabe, jakina. Baserrietatik, oro har, barazkiak, esnea, gazta, babarrunak, artirina, ogia eta halakoak eraman zituzten herrian egon ziren bitartean, oilo eta arrautzak ere bai, baina aziendarik ez. Ez nuen ulertzen txapelokerren buruak Doneanekoekin zeukan herra; behin baino gehiagotan ekarrarazi zuen Auxtin Tiki, eta plazaren erdian makurrarazi, jipoitu ere bai. Handik urteetara kontatu zidan aitak zergatia. Ondo ezagutzen